


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,2 igo dira 2022ko azaroan

Urte arteko terminoetan, 2022ko azaroan, 2021eko azaroaren aldean, kostuak % 10,7 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,2 igo da 2022ko azaroan, aurreko hilaren aldean. Aurreko urteko hil beraren aldean, kostuak % 10,7 igo dira.

Hilabete arteko terminoetan, Etxegintzako kostuak % 0,3 igo dira, eta Obra Zibilekoak, berriz, % 0,1 jaitsi dira. 2021eko azaroarekin alderatuta, prezioak % 13,8 igo dira Obra Zibilean eta % 10,0 Etxegintzan.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2022ko urriaren aldean, **lehengaien** kostuak % 0,3 igo dira, eta **eskulanaren** kostua egonkor mantendu da (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaien kostua % 12,2 igo da eta eskulanarena % 5,8.

Etxegintzaren sektorean lehengaien kostua % 0,4 igo da hilabete artean, eta Obra Zibilarenean % 0,2 jaitsi da. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 11,3 hazi dira eta Obra Zibilekoenak % 16,2.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2022

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	121,9	0,2	10,7
Erailkinak	121,1	0,3	10,0
Obra zibila	125,3	-0,1	13,8
Lehengaiak	123,5	0,3	12,2
Erailkinak	122,4	0,4	11,3
Obra zibila	128,0	-0,2	16,2
Laneskua	116,7	0,0	5,8

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Abenduaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioetan, 2022ko azaroan, 2021eko azaroaren aldean, igoerarik handienak sektore hauetan gertatu dira: *Energia elektrikoa eta gasa*, % 44,6; *Petrolioia fintzea*, % 29,0; eta *Zuraren eta kortxoaren industria*, % 26,5. *Material elektronikoaren* sektorea da urte arteko prezioetan jaitsi den bakarra, % 0,2 jaitsi baita.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Azaroa 2022

	m / m-12
Ezmetalezko meak	12,8
Zuraren eta kortxoaren industria	26,5
Petrolioia fintzea	29,0
Industria kimikoa	22,9
Kautxua eta plastikoa	7,3
Produktu mineral ez-metalezkoak	14,3
Metalgintza	19,5
Metalezko artikulak	11,2
Material elektronikoa	-0,2
Material elektrikoa	5,5
Makineriaren fabrikazioa	3,6
Altzarigintza	8,0
Energia elektrikoa eta gasa	44,6

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Abenduaren 27a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62